

## **Martin Ugalde: "Euskara salbatu behar da, eta gure artean ez bagara konpontzen joan egingo zaigu"**

[Egile ezezaguna]

*Egin*, 1991-03-23.

Martin Ugalde andoaindarrak ez du euskaltzale eta hiritar askorentzat aurkezpen beharrik. Herbestean ibilia frankismo garaian, hamaika lan eginak ditu Ugaldek Venezuelako urteetan ("Euzko Gaztedi" aldizkariaren sortzaile, "Euzkadi" aldizkariaren zuzendaria, "Elite" aldizkariaren zuzendaria, "Elite" Caracas-eko aldizkariaren erredakzio-burua, eta abar luzea). Ehundaka artikuluren egile, hainbat liburu idatzi zuen orduko garaian, erdaraz nola euskaraz. "Centro Vasco de Caracas" izenekoaren sortzaile eta lehendakari izana, Venezuelako PNVren lehendakaria izan zen ere. 1969. urtean itzuli zen herbestetik Euskal Herrira, ordutik aurrera Hondarribian bizi izan da, estatu frantsesean emandako esilio urteak kenduta (73-76).

EAJ-PNV izandako militantzia eta lanez gain, eten gabe aritu izan zen kazetari eta idazle lanetan. Lehenengo Jaurlaritzaren garaian euskararen arduradun izendatua, EAJrengandik aldentua EA sortu zenean.

Egun bere denbora idazle lanetan ematen du batez ere, euskaraz idatziriko liburu zein artikulua ugriak direlarik. Berarekin mintzatu gara euskararen egoeraz eta hainbat gaietaz. Hona hemen bere erantzunak.

*– Zein da zure eritziz, iraganarekin konparatuz gero, euskal kulturaren eta euskararen gaur egungo egoera?*

– Nire ustez, euskara ez da gaur bezain ondo egon inoiz. Gauza asko lortu dira urte gutxitan: ikastolek hogeitertan berebiziko lana egin dute. Komunikabideen aldetik ere oso lan ona egiten ari da: aldizkariak, irratia bera... Euskal Telebista berak ere gauza handi asko ekarri ditu, nahiz eta akats asko izan eta problema asko oraindik konpondu gabe egon. Euskaldunon Egunkariak ere sekulako aurrerakada suposatu du. Kontutan hartu behar da guk ez genuela inoiz amestu-amestu bai, baina pentsatu ez egitan ikusiko genuenik. Eta hau ere lortu dugu.

Dena da zaila eta dena dugu oraindik osatzeko. Eta oraindik ez dugu behar adina egiten. Horregatik, harritu egiten naiz norbaitek AEKren ekintza alde batetan uzten duenean edo, oraindik okerrago, aurka egiten dioenean. Gaur egun, gobernuak euskararen aldeko indar eta bitamina guztiak kontutan hartu behar ditu, ezin ditu baztertu!

Herriak berak erantzun behar du ahal duen moduan. Eta modu askotara erantzun du gure herriak. Hauetariko bat, eta ez da berria, AEK da. Badakit AEKri kutsu batzu erantzi dizkiotela, hain zuzen ere, joko politikoa egiten duela... Egunkaria ere kategoria

berean jartzen du Jaurlaritzak. Baina ez dute ahaztu behar ez dela sekula ikusi herriaren aurrerapenik herriaren kemen eta indarren bidez ez bada izan.

Laburtzeko esango nuke euskara gaur dagoen eran, nahiz eta inoiz baino hobeto egon, bere momenturik zailenean dagoela. Euskarak aurrera egiten badu, beste hizkuntzek ere aurrera egiten dute, baina oraindik indartsuago. Aldameneko hizkuntzak askoz azkarrago mugitzen dira; sateliteak eta abar hor daude eta mundu osora zabaltzen ari dira frantses eta ingelesa. Zer egin dezakegu guk horren aurrean? Gu gara hemen pobreenak.

Gaurko egoeran, euskarak egiten den lan guztia behar du. AEKri edozein motatako oztopoak jartzen bazaizkio, gaititu egin behar dira. Euskararen alde borrokan ari denak laguntza osoa behar du eta ez laguntza bakarrik, bere lan hori eta bere jokaera errespetatzea ere bai.

### **"Euskara gure muinean izan behar dugu"**

*- Zergatik dago orduan, instituzioen aldetik AEK eta beste herri mugimenduen kontrako jarrera?*

- Gure herrian beti sortu dira sailak, taldeak eta frakzioak... betikoa. Nik ez dut ulertzen nola ez garen jartzen, euskararen egoera ikusita, ezberdintasun horien gainetik, iskanbila ororen gainetik. Honek harritzen nau, beti ari gara txikikeriatan.

Agian egia da garai batetako berezitasunak ez zirela bidezko izan. Baina, ze memoria dugu? Ez al dugu memoria gehiegi? Memoria batzutan txarra izaten da, zenbait gauza ahaztu egin behar ditugu. Aurrera begiratu behar da eta ez atzera. Oraindik, estutasun honetan, gure arteko zatiketek jarraitu behar al dute?

Euskara salbatu egin behar da, eta gure artean konpontzen ez bagara, euskara joango zaigu. Eta euskara joanez gero, geurea joan da. Euskaldun direla ez dakitenak bezala geratuko gara, baina oraindik badugu euskaldun izatearen kontzientzia piska bat. Kontzientzia hori galtzen badugu, gure politika guztiak alferrikakoak izango dira, ez gara sekula euskaldun izango. Euskara gure muinean izan behar dugu euskaldun izateko.

*- Kontzientiaren gaia aipatu duzu. Uste al duzu azkenaldian euskararen aldeko kontzientzia hori ahuldu egin dela?*

- Ez, nik uste dut azkenaldian dena indartu dela, zalantzarik gabe. Eusko Jaurlaritza dugunez gero, lan asko egin da eta euskarak laguntza asko izan du. Baina zera gertatzen da, inguruko erdarak era berean edo askoz ere era handiagoan hazi direla. Zoritxarrez, gure bizitza besteen kostean doa: Hemen erdaldunak ez badu euskaraz ikasten, euskarak ez du aurrera egingo. Horregatik eskatu behar zaie gu herri bezala bizirik ateratzen laguntzea. Badakit ez direla gu inbaditzera etorri, lanera baizik, baina ez dute ahaztu behar gu ere herri bat garela. Herri hau dagoeneko, hiru hizkuntzatako herria da; gaztelera, frantsesa eta euskara. Lortu dugu denok hiru hizkuntza horiek jakitea, edo behintzat bi bai. Baina bi alderdiak lotzen dituen euskara da, edo izan beharko litzateke

behintzat. Itxaropena badaukat, beraz, gauzak aurrera doazenarena, nahiz eta gauza asko oraindik egiteko egon.

– *Ze baldintza ikusten beharrezko euskarak aurrera egingo dezan?*

– Epe motzera beharrezkoa ikusten dut eskola guztietan haurrak euskaraz hezitzea, azpi azpitik haurrak euskaraz hezitzea. Besterik, lege mailan, –badakit legeak lege direla eta askotan ez direla errealak–, enplegatu publiko guztiak euskaraz mintzatzen. Askotan, leku publikoetara joaterakoan ez dizute euskaraz erantzuten eta hau bizi-biziki esijitu behar da. Minduko dira batzu, ezin zaie hizkuntza bat bi egunetan ikastarazi, baina aspalditik daramagu hau eskatzen eta askok ez dute ezer egin. Lege bat behar dugu hori azpimarratzeko eta esijentzia hori betetzeko. Epe luzera uste dut Euskal Telebista hobeto planifikatu behar dela. Hasiera batetan oso ondo zegoen baina orain liatuegi. Eta ez da behar bezalako lana egiten. Unibertsitatea ere nahiko utzita ikusten dut euskararen aldetik, behar den lanik egin gabe. Azkenik, kanpaina bat egin beharko litzateke guk beste hizkuntzak ez ditugula gutxien esanez, ez dugula besterik ukatzen.

– *Horri buruz Bernardo Atxagak zioen Quijote nahiz beste erdal lanak ere, Axular eta Gabriel Aresti bezala, bere ondasun kulturalaren parte direla. Zer deritzozu zuk horri?*

– Ados nago horrekin. Eta baita Frantziako idazle handiak ere... Herri guztietako kultura inguruko herrietako kulturarekin osatzen da. Gertatzen dena zera da zoritxarrez, guri kanpokoak bakarrik eman digutela eta gurea dena kendu. Hori da gure negarra. Gu ez gara kexatzen kanpokoak jasotzeagatik, gurea galtzeagatik baizik. Gurea izkutatu digute, gu zanpatu gaituzte, gure herrian ezin zelarik euskara erabili.

Sozialista eta bestek euskara kulturaren zati bat dela pentsatu behar dute, euskal kultura bat badagoela eta indartsua gainera. Beraiek uste baino inportanteagoa. Nik ez dut ikusten beraiek euskararen alde ezer egiten dutenik. Hori al da kulturaren aldeko politika? Hori lotsagabekeria bat da, kulturari ez diote errespeturik. Kanpotik etorritako jendeaz baliatzen dira, ez diete etorritako horiei hemen bi hizkuntzatako herria eraiki behar denik esaten eta ez dute euskararen alde inongo lanik egin.

– *Benetan posible al da, zure ustez, herri elebidun bat eraikitzea?*

– Bi hizkuntzatako herririk ez bada asmatu, guk asmatu beharko dugu. Ez dago beste modurik. Errealista izan behar dugu, bestea errespetatu baina gurea esijituz. Jende guztiari euskara ikasteko aukera eman behar zaio, batez ere jende gazteari. Eta ez guk behartzen ditugulako, gurekin bat egin nahi dutelako, gure neurrian jarri eta gu bezalakoak izan nahi dutelako baizik.

– *Euskararen alde borrokatzen dutenen artean, zein akats egin dira? Egon al da bidea okertu duen planteamendu desegokirik?*

– Ziurrenez, akats asko egingo dira. Gure artean ere seguruenik egongo da isturik, itxirik edo gainontzeko guztiak baztertzen dituztenak. Euskara ez dakitenei errespetoa zor diegu, pertsonak merezi du errespetu bat. Konturatu behar gara euskara ez dakienak agian beste erremediorik ez duela. Inork ez dituelako bultzatu edota guk ere ez diegulako behar hori ondo adierazi.

– *Nola baloratzen duzu zuk Korrikaren zeregina?*

– Garrantzia handia ematen diot, handia. Euskararen alde egiten diren ekitaldi guztiak txalogarriak dira. Korrika da urte t'erdiro euskararen alde egiten den ekitaldirik nabarmena. Hau da, euskara punta batetatik beste puntaraino korrika eramatea, mezu bat eramanez, kilometro bakoitzean eskuz aldatuz... horrek asko adierazten digu. Jende asko mugitzen du eta horrek sekulako garrantzia dauka, berebiziko garrantzia.

Harritzen nauena horrelako ekimen bati ETBk oztupoak jartzea da. Horixe bera Espainiako gobernuak egingo balu frankokeria bat dela esango genuke, berebizikoa armatuko genuke. Baina hori gure Jaurlaritzak egitea... ez dago eskubiderik.

Korrika herri guztietatik pasatzen da, herri guztiotan ematen da Korrikaren berri eta euskararen aldeko giro berezi bat sortu. Leku guztietara iritsi eta oso harrera onarekin gainera. Ikusi dugu Iparraldean, non abertzale ez direnek ere sekulako harrera egin dioten. Hemen berriz, badago gehiegi hitzegiten duena baina ezer egiten ez duena. Gauak ekintzekin demostratu behar dira eta ezer egiten ez bada, behintzat zerbaitegiten duten horiek errespetatu.

– *Ze garrantzia ematen diozu euskararen aldeko presio sozialari?*

– Garrantzia handia benetan. Herriak baditu hainbat era bere eritzia emateko. Hauteskundeetan alkateak, zinegotziak, diputatuak eta abar aukeratzen dira eta hau modu egoki eta normala da. Baina, honetaz gain, herriak lagundu eta askotan gogorarazi egin behar die agintean daudenei badirela ikutu ez diren baina ikutu beharrekoak diren gauzak. Horretarako jendea mugitzea, manifestapenak egitea eta abar normala iruditzen zait, mundu guztian egiten da hori. Urtean behineko botu ematearekin ezin dira gauza guztiak adierazi eta hori nolabait adierazi beharrezkoa da. Hori bai, errespetatuz. Ikusten dut askotan gauzak itxusikeriaz egiten direla, errespetorik gabe, eta hori ez da bidea. Hala ere, argi dago herria erne eta bizirik egon behar dela, bestela, goian dagoenak loa hartu dezake.

– *Bukatzeko, zera galdetu nahi dizut: askotan jendeak esaten du euskararen alde borrokatzea sentimentalkeria bat dela, ez dela praktikoa. Zer deritzozu zuk horri?*

– Adizu, sentimendurik gabe ez dago ezer! Behin gure borroka sentimentalkeria bat dela esan zigun sozialista batek eta nik zera erantzun: "Adizu, sentimenduak galtzen badituzu, dena galdu duzu. Ez dago ezer". Gizon batek bere lurra, bere historia, bere paisaia eta hizkuntza maite behar ditu, hori gizontasunaren froga da. Hori maite ez duenak ez du ezer maite... eta nork esaten du maitasuna arinkeria dela?